



Egilea / El autor

Nerea Arrien (1976, Lekeitio). Biokimikan lizentziatua eta Piano graduaduna, irakaslea da gaur egun.

Bere testuek argia ikusi zuten lagun argazkilari baten argazkiei hitzak jarri zizkienean. Orduetik hona, kolaborazio asko egin ditu hainbat aldizkaritan.

Ipuin sariketa pare bat ere irabazi ditu, *Hiria eta olatua* eta *Bi bala* testuekin.

Pentsatzeko txokoa liburuarekin eskuratu zuen 2015. urtean Lizardi saria.

Hauxe da bere lehenengo nobela.



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Hirutter**

Egilea / Autor: **Nerea Arrien**

Saila / Colección: Narratiba, 107

ISBN / EAN: 978-84-9109-233-9

Salneurria / Precio: 15 €

Orri kopurua / N° páginas: 160

Formatua / Formato: 15 x 22 cm

Lana / La obra

Hiru dira nobelako protagonistak: Martin, Gari eta Ines. Hiruki perfektu horren erpinean dago Ines, bataren eta bestearen sexu (eta maitasun) oldarrak zorabiaraziz. Whatsapp, twitter eta mugikorrek markatzen dute narrazioaren *tempusa*, bakoitzaren lekua hirukiaren baitan eta bizitzari begira norbere espektatibak.

Baina inork ez du bere eskuetan harreman gatazkatsu horrentzako irtenbiderik, ezpada bakea sinatuz ordu arte gerra baino izan ez den bizitzarekin. Izan ere, onenean ere, iragan petralak markatutako arrastoan zeuden hirurak saretuta. Eta iragana nota atsekabez idatzitako pentagrama da, musika frenetikoa, gogorra, pausarik gabea. Istripuan hildako gurasoek utzitako bakardade saketik, edo guraso bananduek zabalduzako zulo hondogabetik datorren melodia lazarria eta minbera da.

Psikoanalisian bezala, *roman* familiarra ari da baldintzatzen gure oraina, patroiz zaharrek jarraitzen dute agintzen gure bizitzetan, eta soilik haiekin bakeak eginez konkistatuko dugu geure bizitzaren kontrola, amaren eta putaren arteko pultsioa leunduz, samurtasuna eta haragia adiskidetz. Azken batean, geure buruarekin batera, bizitza ere maitatzen ikasiz.